



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturen adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

# bertan


MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



## Joserra Garai:

«Pilotaren  
etorkizunerako  
euskal  
selektzioak  
pilota  
indaberritu  
egingo  
du»

1998ko azaroa. 8. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.



26an San Mamesera!

edo Anoetara, edo Mendizorrotzara, edo Sadarrera, edo Miarrizteko zelaira...

Iturriaga 55, 1. ezk. 48004 Bilbo  
Telefona: 94 473 54 48  
E-posta: berton@mail.com

Santutxuko Euskal Txokoa

Udan eta neguan  
goizean, arrastian eta gauean  
euskarari bai ta bai ta bai...

Eta zeu..?

Hemen gagoz:

Iturriaga 55, 1. Ezk  
48004 Bilbo  
94 4735448  
asapala@eusnet.org

EUSKAL



TXOKOA

**OTXARKOAGAKO  
EUSKAL TXOKOA**

**Gure auzoan ekinean**

*Ikastaroak, irteerak,  
kultur ekitaldiak...eta  
beste hainbat gauza  
antolatzen ditugu*

**Euskaraz bizi!**

Telefona: 4121877

4	BUZIOIA IDATZI DIGUTENAK
5	BERTORATUAK "BAI ETA MALLONAN ERE"
6	Beitu! GAZI-GOZOAK
7	Begia
8	MAHATSORRIA BEGOÑAKO ETA EUSKARA
10	BI ETA BAI! EUSKARAREN PORTZENTAJEAK

12	BATU GURERA BAIETZ PLATAFORMA
13	BERBETAN SEXUA, DROGA EDO ROCK&ROLLA?
14	BAKARKA JOSERRA GARAI
17	MAHATSBERRIAK
20	BOTA BA! MAHATSORRIAK INDIAN! SANTUTXUKO MENDI TALDEA

25	BIDEAK Kultur berriak
27	BEGIZORROTZA Komikia
28	BEJONDEIZULA! LEHIAKETA MUNDIALA
30	BURUHAUSTEAK DENBORAPASAK
31	BERTSOTAN

berton

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkarte

ERREDAKZIOA:

Iturriaga 55, 1. ezkerre.  
48004 Bilbo  
Telefona: 94 473 54 48  
E-posta: berton@mail.com

ZUZENDARIA:

Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi  
Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione  
Letamendia, Itxaso Perez.

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona, Xabi Herrera.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:

Joseba Zelaia, Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Eduarne Basozabal, Idoia Irastorza,  
Igor Martin de Vidales, Santutxuko Bertso  
Eskola, Igor Zorrozueta, Angel Zelaieta.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA :

Koldo Urrutikoetxea.

LEGE GORDAILUA:

BI-85-98

ALE KOPURUA:

1000

FOTOMEKANIKA:

Argia S.L.

Inprenta:

Antza inprimategia.

## Aupa Mahatsorriok!

Beno, orain nik idatziko dut, zeren eta euskaltegia hamaika urte igaro baititut eta azkenean lortu baitut Euskaltzaindiaren arau guzti-guztiak, bait-ena batik batik ikastea. Gainera, nahiz eta ni euskaldunberria izan, euskaraz idaztea asko gustatzen zait, baina nahiago dut mintza-praktika.

Nik *Berton* hasieratik irakurtzen dut, eta artikulu batzuk zailak izanagatik, zeren euskaldunzaharrei ulertzea oso zaila baita, nik gainontzeko guztia irakurtzen dut, eta horrela enteratzen naiz auzoan zer gertatzen den.

Adibidez, ale honetan Joserra Garai irtetzen da. Nik entzunda nuen haren izena, eta banekien Euskal Herriko pilota federazioko lehendakaria zela, baina ez nekien Santutxun ibiltzen zenik. Jakin dut, era berean, Begoñako batzuk joan direla Himalayara, eta han kriston mendia ia-ia igo dutela. Ze pena puntaraino ez igotzea!

Horrez gain Santutxuko Mendi Taldeak 25 urte egin ditu, izan ere, orain dela hogeita bost urte hasi ziren mendira joaten. Gainera, gau-eskolako batzuek egin zuten. Euskara behintzat ikasiko zuten, zeren eta neuri ere urte asko kostatu baitzait ikastea. Baina ikasi dut, e!

Bukatzeke aipatu beharra dago datorren hilean, abenduak 26, Bai Euskarari izago dela. Eta neuk ere baietz esaten diot euskarari, zeren eta euskararik ez balego, ni ez bainindoake euskaltegira eta ez bainukeen artikulu hau idatziko.

Irakasleak irakurtzen duenean flipatu egingo du zer ondo idazten dudana.

Sinaturik:  
Mantsur

# idatzi digute...

2001: ZARAMAREN ODISEA

Printzipioz, Bilboko udaletxeak martxan jarri duen zarama-biltze sistema berriaren alde agertu eta hau animatu beharko genuke.


Sistema berri honekin, besteak beste, zarama kontainer gune finkoak ezarri dira, zarama pilatu ez dadin, usain txarrik sortu ez dezan eta ingurua garbi mantendu dadin.

Auzoz auzo, Bilboko erdigunetik hurbil daudenak lehenengo eta besteak gero, kontainer gune finkoak ezartzearekin batera, ontzi berriak ipini dituzte, hauen kokapena ere aldatuz. Horrela, hauek kokatzeko barrera berezi batzuk jarri dituzte, berde koloreko pibote zilindriko batzuk, hain zuzen ere.

Baina pibote hauek ipinita ikusiz gero, erraza da nabaritzea hauek hartzen duten eremu zabala. Birziklapen ontziak zein kotxeak aparkatzeko lekua erabat murrizten dute pibote hauek, Santutxun bakarrik 80 aparkaleku gutxiago egonik orain.

Horrez gain, kale asko oso estuak eta aldapatsuak dira. Horrela, kontainer hauen presentziaren ondorioz, hainbat kaletan oztopo argiak bilakatu dira bertatik igarotzeko orduan. Gainera, kontainer hauen kokapena zeharo ezberdina da hainbat kaletan. Izan ere, zenbait kaletan, kontainer bana aurki dezakegu etxe atari bakoitzaren aurrean, beste batzuetan, lau izatera iritsiz kokaturik dauden zaramontziak.

Argi ikusten da ez dutela kontutan hartu kale bakoitzaren egoera, karrika batzuetan zaramontzi gehiago behar baitira, bertan dauden garaje, tailer eta denden arabera.



Horrela bada, kontainer kopurua desegokia izateaz gain, hauen kokapena ere desegokia da kasu askotan, hauen presentziak arazo ezberdinak sortzen baititu.

Horregatik, askoren eritzia da sistema berri hau hurrengo hauteskundeetara begira ipini dela martxan, eta ez bilbotarron beharrak asetzeko asmoz.

Aipatzeko, pasa den azaroaren 3an, zarama-biltzaileen egune, ezagutu genuen egoera. Udaletxea ez zen gai izan egun honen berri modu egoki batetan emateko, eta hainbatek zaramak jeitsi zituzten, hurrengo egunera arte bilduak izan ez baziren ere. (Hala ere, beti dago zarama behar ez denean jeisten duenik.)

Udaletxeak zaramari buruzko informazioa luzatu beharko lioke Bilboko populazioari, arestian aipatutakoa berriro gerta ez dadin. Hobetzeko gauza asko, beraz, udaletxeak ezarri berri duen sistema honetan.

Pepelu  
(Solokoetxeko Koordinakundeko kidea)

1998ko azaroa. 8. zenbakia.

# kolaborazioak

## Bai eta Mallonan ere

Benito Fiz Diez



Hogei urte, bai. Bai eta bai kantatu zuten San Mameseko harmaila beteek. Pantxoia eta Peioren kantuaren leloa behin eta berriz kantatu: "*..eta bai, nik euskarari bai ta ba!*". Eta bai eta bai segitzen dugu hogei urte igarota. Baina oraingoan leloa baino gehiago kantatu behar dugu. Estrofeekin hasteko ordua dugu behingoz. Erraza eta polita izan zaigu orain arte euskararen leloak kantatzea. Estrofa, berriz, luzeak eta aldrebesak sarritan.

Oraingoan leloa gurekin kantatzea eskatuko diegu hainbati. Lelo horretan bilatuko dugu XXI. mendeko akordioa.

Eta lelo polita denez, askori kantatzea ez zaio gatxa egingo, baina euskararen normalizazioaren kantua lelo hutsa barik, estrofa gatx eta luzeetako poema da, puntu ugariko bertso sorta luzea, josten beharleku itzela emango diguna, eta poeta eta musikari guztien elkarlana behar duena, gura dugun kantu koral polifonikoa egiteko.

Gizartea aspaldian dabil esaten bai eta bai euskarari, eta oraingoan ere esango dio seguruenik. San Mames eta beste lau zelaiak beteko ditu abesbatza erraldoiak maila goreneko kantata sinfonikoan.

Baina puntako kontzertuak egiteko milaka musikari behar dira trebatu kontserbatorio eta musika eskoletan, milaka poetak zirriboratu behar dituzte milaka paper, eta milaka musikarik entsaiatu eta jo behar dute milaka orduz, eta kantuaren musika eta letrak barneratu, eta horiek guztiak armonizatzen eta gobernatzeko dituen zuzendariak behar dira, eta hori ez da arratsalde bateko

beharlekua. Eta kantu definitiboan egin barik dago. 26ko kontzertuarena azken baten, entsaio orokor bat baino ez da. Hor ikusiko dugu bakoitzak non desafinatzen duen, edo kantaren zein pasarte landu behar duen. Eta 27an bakoitzak bere instrumentua hartu eta kantua berriro entsaiatzen hasi beharko du. Eta letragileek falta diren estrofa osatzen hasi beharko dute. Eta gure fanfarre eta otxote txikietara bueltatuko gara kantu xumeagoak kantatzera.

Orduan konturatuko gara, beharbada, eguneroko kantu txiki horiekin osatzen dela kantu orokorra, eta kantu horiek egunero armonizatu eta entsaiatu behar direla. San Mamesen aurretik Mallona lako zelaiak bete behar ditugu, entrenatzeko baino ez bada ere. Estrofa ondo ikasita eta armonizatuta. Ea hogei urte barru gutxiago desafinatzen dugun.

bertin

KOMERTZIALA BEHAR DUGU

Interesatzen bazaizu jarri kontaktuan gurekin,  
telefono honetan:

94 473 54 48

**DAYTON**

Reagge-festa  
taberna

Santutxuko poteo gunean

**ANGEL**

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

# gazi-gozoak



Gure auzunean Berton-etik aparte badira beste auzo-aldizkari batzuk. Ezagunenak *El Extra* eta *Vecinos de Santutxu* dira. Lan polita egiten dute biek ala biek gure inguruko berriak zabaltzen. Hala ere, euskararen presentzia nahikoa urria da bietan. *El Extra*-n zenbait berri eta kontu ateratzen dituzte euskaraz, gutxi eta apur bat marjinalak hala ere. *Vecinos de Santutxun*, berriz, apenas agertzen da euskararik. Ea hemendik aurrera euskara gehiago ikusten dugun haien orrialdeetan.



Bai Euskarari kanpaina martxan da. Gure inguruan batzordeak eratzen hasi dira XXI. mendeko akordiaren aldeko sinadurak eta atxikimenduak batzeko asmoz. Aspaldiko partez batu dira euskalgintzako talde guztiak proiektu bat aurrera eramateko. Elkarlana auzoei begirako proiektuetan ere gauzatu dadila hemendik aurrera. Ea honelako kanpaineekin gure auzoetako euskalgintza espabilatzen den.

bertin

EGIA



Argazkia: Inigo Azkona.

## Hartu bertin etxean! egin harpidetza!

**bertin** Harpidetza txartela

Izen abizenak.....  
 Kalea: ..... zenbakia: ..... solairua: .....  
 Herria: ..... Posta kodea: .....  
 Telefonoa: ..... Banku edo aurrezki kutxa: .....

Kontu zenbakia:  Entitatea    Sukurtsala    K.D.    Kontu zenbakia

11 zenbaki urtean  
 1.000 pezeta  gehiago: ..... pzta.

**BETE TXARTELTXO HAU ETA BIDALDU HONA:  
 Berton aldirakaria. Iturriaga 55  
 1.ezk.48004 Bilbo. Bizkaia**

Sinadura:

U  
T  
E  
I  
T  
I  
D

## Begoña eta euskara

⇒ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Udagoienak<sup>1</sup> harrapatu gaitu soinetik kresala sunda<sup>2</sup> kendu barik gagozala. Urte asko ez direala, Begoña eta Euskal Herri osoa inguruneari orain baino lotuago bizi zanean, urtarok garrantzi handia edukitzen eben gizakien bizimoduan; orain bere eduki badauke, nahi-ta gure horregazko kontzientzia artean gainako garbia izan ez.

Udagoiena berbea bera bere esanguratsua da sano; astegoiena astearen atzena edo burua dan moduan, udagoiena udearen mukurua<sup>3</sup>, atzena edo burua bere bada. Egunak laburtuten direan sasoi honetan neguteari begira natura osoa lomutuan<sup>4</sup> sartuko jaku, urtearen sasoirik baltzenaren ondorenean gorbizatuteko<sup>5</sup>.

Sasoiagaz batera meteorologia eta astroen eragina nabarmendu egiten direana ezin ukatu lei<sup>6</sup>.

«Gaua gauzkoantzat eta eguna egunezkoantzat» dinoan esakuna zaharragatik bere, leizetan bizi izaten zirean haien antzean gaueko zeru izarratuari<sup>7</sup> adi paratu gara geu bere eta hau lorra<sup>8</sup>! iretargiaren begiaren ederra! oporren akaberak sortuko axanpa<sup>9</sup> malenkoniatsu honetatik urtetan lagunduko deuskuelakotzat luzero egon gatzakoz adi eta astindu deuskuz gogo-bihotzak. Iretargia edo itargia esaten deusugun honek badaukoz Euskal Herriaren luze-zabalean beste uzten batzuk ilargi, ilazki, argizaitia edo goikoa. Gau honetan daukozan espilairi<sup>10</sup> erreparatu eta zer dala ta daukozan itaundu behar izan dogu.

Txurdinagako aldea-etxe baten bizi ei zan mutil zahar, zarpail, prakazar<sup>11</sup>, baragarri<sup>12</sup> batek urtetan ei eban iretargiaren ostukuneatan<sup>13</sup> inguruko berezi<sup>14</sup>, baso eta soloetatik berana ez zana koiu guran. Gau baten idiak buztartuta, ira eta otabar eske joan jaku gure gizona. Gau zarratua izan da, hedoi montorak<sup>15</sup> estaldu dabe iretargia eta hor



doa zuen gizona, inok ikusiko ez dauelako gogorra<sup>16</sup> dauko. Soloan berdegiliteaz<sup>17</sup> ekin deutso egitekoari, baina halako baten haize boluzio<sup>18</sup> batek hedoiak desegin eta iretargi amandreak argitu ditu baztar eta okolu<sup>19</sup> duztiak. Zuen gizona biraoka hasi jaku iretargiari, berau hasarratu eta gurdi eta duzti altzatu dau beragana. Ordurik hona han ei dago idi-parea, gurdi eta eskuan idurkea<sup>20</sup> dauela. Horrexegatik ikusten jakoz espilak iretargiari.

Beste sasoi batean dineude ze, iretargia eta eguzkia alkarregaz bizi izan zireala, baina zergatia argi ez dagoela, hasarratu zirean eta alkar ikusi ezteko<sup>21</sup> iretargia gauaz ikusten dugu eta eguzkia egunez. Eguzkia (edo ekhia) hemendik gora zuria baino ez da izango, dirdiratsua baina epela, udako trumonaden arteko eguzki txangoten<sup>22</sup> begira egon beharko da hurrengo urterarte. Eguzkiak begi ederra dauko eta arteragoko etxeak eguzkibegira

egiten zirean, izkutunean, afrontuak<sup>23</sup> joten ez dauan lekuan.

Metereologiak daukon hiztegi ederrari emongo deusagu errepasso txikar bat gure gaurko honetan.

### EDURRA

Edurak edo elurak ez dau gure inguru hau sarritan zurututen bere metxa edo malutakaz; ha ta guzti bere, noizean behin jazoten danean, eguzkiak arin lurmenduten<sup>24</sup> dau. Edurra bera baino, sarriago edur bustia ikusten dugu edo abazuza. Bizkaiko herri gehienetan lehia eta edurra sano ondo bereizten dira; lehia soro landetan ikusten dogunean lehi zuria dagoala esaten dogu, ikusten ez danean, ostera, lehi baltza egoten da, berau txarragoa ei da zuria baino, ze, ikusi ez arren lurra gogortu egiten dau eta pozu eta tranguetako<sup>25</sup> ura krisltal bihurtu arazo bere egiten dau.

### ABAZUZA

Abazuza, inetazi, txirgora edo txingorrari jarraituta bidaia ederra egin geinke han-hor-hemen ebaliten direan berbak gogotara ekarrita. Kazkabarra, babazizkorra edo zitzarra esaten diote Bizkaitik kanpo honeri. Dana dala, txikarra danean txotorra esaten deusagu eta handia danean harria, beti ez da gauza bat izaten eta. Lapurdin, Bizkaiko sartaldean legez, bazuza esaten jaku honeri.

### OINEZTUA

Olinpoko batzarretan agertuten zanean, dineude ze, lupiter bere oineztuakaz joaten zala eta inguruko jainko-jainkosa duztiak ikaratu egiten zituezala. lupiter jaiko-jainkosa duztien aita, greziar Zeus-egaz batera, egunaren aita eta oinezturen jaubeari lovis dies egunaren uzena emon jakon aurreratzean hilkor duztiak hagaz akorda egiteko. Era berean, Odinen semeak, Thor handiak oineztuak jaurtaten zituen, honegaz akorda eragiteko Thor-dag (Thor-en eguna) lotu zan (ingelesez, alemanieraz, suedieraz, e.a.). Thor trumoiaren jainkoa bere bada, gaitza izaten da kultura askotan trumoi eta oineztua bereizten. Gurean bere, Lapurdin esate baterako, iurtzuria trumoi zein oineztua da; Uribe-Kostako jurtzuria Oñatin futzuria da, baina hemen trumoi eta ez oineztua. Amorothon, adibidez, ineztua argitasuna da, baina ineztarria jausten dena. Beste uzten eder asko ere baditu: jutzuri, ineztua, onitzitua, tximista, oinaztarria, ozpingarria, txilimista, jostaia, e.a.

### TRUMOIA

Gure inguruko hizkuntza europearretan eguenari lupiter edo Thor-en omenezko uztenak emon bajakoz, gurean ere trumoi zeruagaz erlazonatu egin da. Nafarroa Beherean «ortzia» esaten dako,

eta ortzeguna dugu eguenaren uzena, jakina osteguna gauza bat da. Nafarroa Garaian «ortotsa» edo «ostotsa» entzungu doguz, ortziaren hotsa, eta trumonadeari «ortoska» esango deutse. Bizkaiko hego sortaldean «odeia» esaten jaku honeri, bardin Erronkarin eta Zaraitzun, uzten hau zeruagaz lotu behar dogu. Azkenerako, Zuberoko berba polit bi «ulhungia» eta «dünda».

### UZTARKUA

Ortzia zeru-lurretako hotsa dan moduan, batzuetan arku bere badauko, hori arkuori ikusten danean, lukiak ezkondu egiten direala esaten izan dogu Bizkaitarrok. Nafarroako Ultzaman eta Erroibarrean «azeri-boda» esaten jaku eta Lapurdiko Azkainen eguzkia eta euria batera ikusten direanean, orduan «azeriak espos» esaten da. Ortzia badauko beste batzuetan adarra, orduan «ortzadarra» edo «ostadarra». Gipuzkoako leku batzuetan «erromako zubia» esaten jaku eta Nafarroako Sakanan «jainkoaren gerrikoaren paxa» bere entzun dogu.

Hurrengo baten segidu geinke haroaren gainerako berba egiten, izan bere, makinatxu bat itzi doguz aitatu barik. Neguan, otsoen antzera, neguteari ekin beharko deusagu haro baltza egongo dana legez, ez dogu pentsetan sasoi aproposa izango danik. Udabarriagaz batera aurki<sup>26</sup>, haroak su barik dirakien odola irakin arazoten badeusku ikusiko dogu.

<sup>1</sup> udagoiena: udazkena  
<sup>2</sup> sunda: usaina  
<sup>3</sup> mukurua: erpina, gaina  
<sup>4</sup> lomutua: lotaldia  
<sup>5</sup> gorbizatu: orbitatu, berpiztu, itxartu  
<sup>6</sup> lei: liteke, lezake  
<sup>7</sup> izarratu: izarratu, izarrez beterikoa  
<sup>8</sup> lorra: ustekabea  
<sup>9</sup> axanpa: larritasuna, estukuntza, angustia  
<sup>10</sup> espil: marka, lohidura  
<sup>11</sup> prakazar: txiro, pobre  
<sup>12</sup> baragarri: barregarri  
<sup>13</sup> ostukune: izkutaldi, ostendune  
<sup>14</sup> berezi: baso itxia, abaro  
<sup>15</sup> hedoi montorak: hedoi beltz handiak  
<sup>16</sup> lako gogorra eduki: zerezegaz konbentzituta egon  
<sup>17</sup> berdegilitea: kodaina, sega  
<sup>18</sup> boluzio: bolada  
<sup>19</sup> okolu: bazter, izkutune  
<sup>20</sup> idurkea: sarda moduko erreminta  
<sup>21</sup> ikusi ezteko: ez ikusteko  
<sup>22</sup> eguzki txangota: aterrunetan sano berotuten dauen eguzkia  
<sup>23</sup> afontua: haizeak eta euriak batera jotzen dabenean aurrerikara  
<sup>24</sup> lurmendu: lurra atera, edurra urtu  
<sup>25</sup> trangu: bide eta kaminoetako ur potxingoak  
<sup>26</sup> aurki: ameneko, seguruenik

E  
G  
O  
Ñ  
E  
R  
A  
Z



# Euskararen portzentajeak

Orain dela gutxi plazaratu du EKBk 1997an euskara kalean zenbat egiten den neurtzeko ikerketaren datuak. Mahatserriko auzoetako datu zehatzik ez dugu, hala ere, Bilboko emaitzak ekarri ditugu. Neurketa hau kalean erdaraz eta euskaraz entzundako elkarrizketak zenbatu ziren.

Horiekin batera, eta guztiok geure errealitatearen berri izan dezagun euskararen ezagutzaren datuak ere ekarri ditugu auzorik auzo eta urte desberdinetan egindako neurketeten.

- 1997an EKBk egindako kale neurketa.
- 1989: % 2,50
  - 1991: % 4,33 + % 1,83
  - 1997: % 4,60 + % 0,27
- Bilboko datuak
- Neurtutako hiztunen kopurua: 33656
  - Euskaraz zenbat: 1520
  - Portzentajea: % 4,60

Euskararen ezagutza auzoka:

	Biztanleak	1996	Aldea	1991
Santutxu	36369	5543	1408	4135
Txurdinaga	16909	2691	1993	698
Uribarri	15197	2076	803	1273
Zurbaran/Arabella	13120	2085	613	1472
Otxarkoaga	12649	689	214	475
Begoña	11165	1292	308	984
Solokoetxe	7811	1318	762	556
Bolueta	4919	600	222	378

Euskaraz ondo egiten dutenen portzentajeak

	Euskaldunak ehunekoetan	Igoera
Santutxu	15%	25%
Txurdinaga	16%	74%
Uribarri	14%	39%
Zurbaran/Arabella	16%	29%
Otxarkoaga	5%	31%
Begoña	12%	24%
Solokoetxe	17%	58%
Bolueta	12%	37%

Euskaraz ondo hitz egiten dutenen kopuruak auzoka

	Biztanleak	1996	1991	Aldea
Santutxu	36369	5543	4135	1408
Txurdinaga	16909	2691	698	1993
Uribarri	15197	2076	1273	803
Zurbaran/Arabella	13120	2085	1472	613
Otxarkoaga	12649	689	475	214
Begoña	11165	1292	984	308
Solokoetxe	7811	1318	556	762
Bolueta	4919	600	378	222



## Bai euskarari!

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak euskara indartzeko asmoz kanpaina berri bat jarri du martxan: Bai Euskarari kanpaina. Halere, ez du kanpaina arrunta izaterik nahi; etorkizunean euskaraz bizi nahi dugun adierazgarri argia izan nahi du. Horretarako, herri guztietako txoko guztietara iritsi nahi du, eta euskararen alde dagoen jende guztiaren atxekimendua jasotzea du helburu. Mahatserrri aldean ere jarri da martxan kanpaina, eta aurrera eramateko batzorde bat eratu da; euskararen alde diharduten talde eta norbanakoez osotua.

Kanpainaren alderik garrantzitsuena eragin soziala duten talde guztiak inplikatzean datza. Horretarako, auzo bakoitzean dauden talde eragileen zerrenda bat egin, eta horiengana zuzentzeko asmoa du batzordeak. Talde horiei akordio eta normalizazioaren beharra azalduko zaie, eta ondoren atxekimendua eskatuko zaie; euskarari bai esatea. Arlo urbanoa landuz, dendei ere euskararen aldeko erronka azaldu eta bai euskarari dion kartela jartzea eskatuko zaie, euskaraz bizi nahi dugunaren adierazgarri.

Egunotan, auzoz auzo euskararen aldeko giroa sortzea izango da lan nagusia, abenduaren 26ari begira. Izan ere, abenduaren 26ean Euskal Herriko bost estadio betetzea dute helburu Euskararen Kontseiluak. Bizkaiko euskalzaleek San Mamesera joateko deialdia dugu. Baina une berean, beste lau estadiotarako deialdia ere badago. Bostak koordinatuta egongo dira eta hartu eman zuzena izango dute ETBri esker; bost estadioak betetzea izango da erronka nagusia. Esan diezaigun guztiok bai euskarari! Amaitzeko gogoratu Santutxuko batzordea, gure inguruan orain arte eratu den bakarra asteartero arratsaldeko 7.30etan batzen dela Begoñako Udaltzegan.

«Bai Euskarari» jaia Santutxun Pasa den azaroaren 6an, ostirala, eta EHEren eskutik, «Bai Euskarari» lemapean euskal festa ospatu zen Santutxun. Jaia ordu beteko poteoarekin hasi zen, eta ondoren bertso-saioa egon zen. Bertan Arkaitz Estiballes eta Iñaki Aurrekoetxea aritu ziren umore onez bertsoak botatzen. Hau amaitutakoan, auzokidea dugun Alain Martinez-ek magia-saio bat eskaini zuen.

Jende gutxi izan bazen ere, giro onean igaro ziren ekitaldiak, tartean txorizoa eta odolostea, zozketa eta parranda ez zirelarik falta.

# Baietz!

Oraingoan, Euskal Herriko auzo gehienetan sortu den talde batez arituko gara: Baietz plataformaz. Taldearen sorreraren zergatia, helburua eta nondik norakoak ezagutzeko, plataformako kide batekin mintzatu ginen, eta hona hemen kontatu ziguna.

☞ Aitziber Laskibar

Uztailaren 15ean, Egin egunkaria eta Egin Irratia itxi zituen Garzon Madrilgo epaileak, informazio eskubidea eta berrehun langile ingururen eskubideak zapalduz. Horren aurreran, egun berean pertsona talde bat lanean hasi zen Eginetik betetzen zuen tarte hutsean gera ez zedin.

Hasiera batean Hitz Egin plataformaren izenean aritzea pentsatu bazuten ere, lege arazoak sor zitezkeela eta, izena aldatu eta Baietz Fundazioa eratzea erabaki zuten eta Eusko Jaurlaritzan legeztatze paperak bete zituzten. Ahotsik gabekoen ahotsa izatea izango zuen helburu.

Beraz, Egin itxi eta berehala hasi zen lanean Baietz Fundazioa bai nazional mailan, bai herri edota auzo guztietan. Buruari astindu bat eman, eta duela hogeitau urte Eginen sorreraren alde aritu zirenekin kontaktatu zen. Hala egin zuten Santutxun ere, eta «historikoen» talde bat biltzea lortu zen. Gaur egun, hamar bat pertsona dira auzoko plataforman lanean ari direnak; Eginen sorreran aritutako jende nagusia, eta baita jende gaztea ere. Hasieran Estatu espainiarraren zapalkuntzaren aurrean salaketa

izan zen nagusi, informazio eskubidea aldarrikatzearekin batera. Baina denbora aurrera joan ahala, aurrera begira lanean hasi ziren; medio berri bat sortu nahiean.

Gaur egun hori da Baietz Fundazioaren erronka nagusia: egunkari berri eta zabal bat sortzea. Egunkari horren filosofia nagusia hitzik ez dutenei hitza ematea da: herriko jendeari, internazionalistei, zapalduari, euskaldunagoa izatea... Baina hau epe laburreko helburutzat badute ere, erronka ez da hortara mugatzen. Izan ere, aurrerantzean irratia, internet, telebista, zinema, etab. ere jorratu nahi dituzte, bere hitzetan gizartearekin batera aurrera joan behar baita.

Baina proiektu hori aurrera eramateko, dirua da arazo nagusia eta gaur egun horretan ari da lanean plataforma, gehienbat. Horretarako, Tantaka Tantaka kanpaina jarri dute martxan, mila milioi pezeta jaso behar baitira tantaka, egunkari berria atera nahi bada. Mila milioi pezeta horiek biltzeko, herriarengana jo da, eta herri edota auzo bakoitzaren posibilitateak ikusiz, diru kopuru bat eskatu zaio herri eta auzo bakoitzari; Santutxuk adibidez, hogeitau milioi jaso behar ditu. Lan horretan ari da orain Santutxuko

Baietz plataforma.

Eta nola bildu hogeitau milioi auzo batean? Asanblada ireki batetarako deia egin zen hasiera batean, jendea informatu eta proiektuaren partaide egiteko. Dirua biltzeko bi posibilitate eskaintzen dira. Akzioak erostea da lehentasuna eman zaion aukera. Akzio bakoitza ehun mila pezetakoa da. Nahiko erantzun ona izan du honek, eta jendeak pertsonal mailan, koadriletan bilduta, elkarte mailan... erosi ditu akzioak. Erantzun on horren arrazoiak proiektua herrikoia izatea dela uste dute antolatzaileek. Halere, hasierako erantzuna indartsuagoa zela onartu zuten; orain astiroago doa bilketa. Dirua emateko beste aukera, bakoitzak ahal duena ematea da, akziorik erosi gabe. Aportazioak egiteko honako kontu zenbakia zabaldu dute Euskadiko Kutxan: 3035-0071-61-0711075160 Edo zalantzaren bat izan ezker, 411 71 18 telefono zenbakira dei egitera gonbidatzen du Baietz plataformak.

Antolatzaileek esan bezala, guztia ondo atera ezker, urtarilaren hasierarako egunkari berria kalean izatea espero da. Hala bedi!



bertin


I N K E S T A

## sexua drogak edo rock & roll-a?




M a r t a Santutxu

« Sexua. Izan ere, hiruretatik merkeen ateratzen dena da! »



A s i e r Txurdinaga

« Uff! Hirurak. Ezingonuke bat aukeratu eta beste bat ez. Denak dira garrantzitsuak! »




J o s e r r a Txurdinaga

« Galdera zaila da. Hirurekin geldituko nintzateke, baina lehentasuna sexuari ematen diot, drogak eta musika bigarren planu batean utziz »




L a u r a Otxarkoaga

« Dudarik gabe, sexua. Drogak ez ditut gustoko eta Rock and Roll-a ere, ez zait batere gustatzen »




D a v i d Santutxu

« Brometan zabilta? Denak! Hirurak nahastu behar dira, denetik probatu egin behar da »




I ñ a k i Santutxu

« Denak. Hala ere, sexua beharrezkoagoa iruditzen zait, baina ugaltze kontuagatik, eh! »



A n a Uribarri

« Sexua lehenengo, drogak gero, Rock and Roll-a azkenik »



G o r k a Santutxu

« Beno, hirurak, baina bat aukeratzearren, Rock and Roll-a. Izan ere, musika adierazpen mundu bat da »

Argazkiak: Inigo Azkona.

ATU GURERA!

E R B E T A N

J O S E R R A G A R A I :

# “pilota konpetizioa bada ere, lagun arteko jokoa da”



Euskal pilota federazioaren presidentea den Joserra Garaik urte asko eman ditu Santutxun bizitzen. Dagoeneko Diman bizi da baina ez ditu auzo honetako kontuak ahazten.

## Arrate Diez

### Zeintzu proiektu ditu euskal pilota federazioak epe labur edo ertainera?

Gure helburu nagusiak bi dira batez ere. Alde batetik, pilota mundua zabaldu nahi dugu, jende gehiago pilotan aritzea da gure xedea. Honez gain, pilota modernizatu eta gizarte berrietara egokitu gure dugu. Bestaldetik, pilota munduan zehar zabaltzea dugu helburu. Bi ildo nagusi hauen barnean beste hainbat helburu dugu:

«Espainiako Federazioari kostatzen zaio pilotan guk dugun iragana eta indarra onartzea»

federazioa indartzea, lurralde ezberdinetako federazioekin elkarlanean aritzea, txapelketak hobetzea, inguruko lurraldeekin harremanak sendotzea...besteak beste, iparraldearekin eta Ameriketako nazioekin. Nahiko genuke ere ume gehiago pilota munduan sartzea, gazteekin lan gehiago egin, eta horregatik ari gara erramintak eta materiala egokitzen. Teknifikazioa ere pilota munduan sartu nahi dugu,

eta euskal selekzio munduan txapelketa ofizialetan parte hartzea.

### Pilotaren zein modalitate da antolatzeko eta kudeatzeko zailena?

Pilotak badu arazo handi bat, hau da, batetik arazoa dena eta bestetik altxor bat dena ere. Pilotak modalitate asko ditu, guztira hamalau modalitate ezberdin. Hauetarik batzuk egoera txarrean, joko zaharrak



direnak hain zuzen (laxoa, errebotea...). Badaude beste modalitate batzuk, zesta, trinketea edota pala indartu behar direnak, momentu honetan esku pilota baita nagusi.

### Ze harreman duzue espainiar federazioekin?

Espainiar federazioekin harremanak ez daude momenturik onenean, batez ere, guk gure selekzioa izateko nahia agertu dugunetik.

Espainiako Federazioari kostatzen zaio pilotan guk dugun iragana eta indarra onartzea.

### Zein modalitatetan inbertitzen da diru gehien?

Momentu honetan pilota

munduan esku pilota da nagusi eta hor inbertitzen da diru gehiena

« Pilotaren etorkizunerako euskal selekzioak pilota indarberritu du »

### Zaila al da euskal pilota federazioa kudeatzea?

Guk federazioaren arduraren hartu genuenean barne egoera ez zen oso ona, nahiko ahul zebilen. Lurralde ezberdinetako federazioekin ez zen ona eta diru iturri asko moztuta zeuden. Guk lan egiteko modua aldatu dugu, elkarlana eta adostasuna

bultzatuz. Jende guztiarekin harreman onak izaten saiatu gara. Pilotan dauden indar guztiak norabide batean jartzea da momentu honetan dugun erronka.

### Noizko ikusiko dugu euskal selekzioa ofizialki konpetitzen?

Data bat esatea zaila bada ere, nire ustez hurrengo txapelketarako izango dugu.

### Enpresek kalte ala onura ekarri diote euskal federazioari?

Enpresak pilota munduko alor bat besterik ez dira. Gu saiatzen gara interes partikularrak saihesten eta federazioarentzat interes orokorrak direnak aurrera ateratzen. Gure dinamikan enpresak sartzen saiatzen gara, beti ere beraien kudeaketa oztopatu gabe, baina gutxienez harreman onak izaten ahalegintzen gara.

### Zer nolako harremana duzue enpresa ezberdinekin?

Harremanak onak dira nahiz eta gauza guztietan bat ez gatozen. Lan egiteko marko bat finkatu dugu, txapelketen araudi bat egin dugu. Ikusi behar dute pilota gaur bizi dela baina hemendik hamar urtera ere.

### Pilotak behar adina du komunikabideetan?

Momentu honetan islada nahiko handia da, Euskal Herriko komunikabideetan asko azaltzen da. Estatuko komunikabideetan, aldiz, islada ez da hainbestekoa, eta hori ere gure eginbeharra da. Gu

interesatuta gaude Euskal Herriko pilotan aritzea, baina baita munduan zehar ere.

### Zer iritzi duzue euskal selekzioak era ofizialean konpetitu ahal izateari buruz?

Guk askotan esan dugu euskal selekzioa txapelketa ofizialean aritzeko, gainera, kirol lege berriak horren aldeko apostua



egin du eta gu horretan ari gara lanean. Guk uste dugu gure iragana eta tradizioarekin nahikoa arrazoi dugula selekzio propioa edukitzeko. Horrez gain, pilotaren etorkizunerako euskal selekzioak pilota indarberritu du.

### Zenbat urte daramazu presidente lanetan?

Bost urtetan egon naiz Bizkaiko pilota federazioa eta urtarrilean urtebete izango da presidente lanean nabilela.

### Mahatserrian ba al dago pilota praktikatzeko azpiegiturarik?

Mahatserrian frontoiak badaude baina frontoi haundi bat falta da. Gabezi hau ez dago Mahatserrian bakarrik, baita Bilbon ere. Laster Bilboko frontoia

egiteko obrak hasiko dira gas fabrikan. Berau Bilboko pilotarentzat pentsatuta dago, oraindik ez baitago frontoi ofizial eta publiko onik.

### Santutxu auzoan bizi

«Nik gogoratzen dut eskolara joatean beti pilota poltsikoan eta errekreoa heltzen zenean denok korrika gindoazen horma harrapatzera...».

### zinenean zein leku zenuen gustokoen?

Karmeloko eliza edo konbentuan lehen frontoi zahar bat zegoen eta hori oso leku polita zen. Galdu egin da pilotan aritzeko

lehen genuen zaletasun hura eta errekuperatu behar dugu nahiz eta orain kirol gehiago dauden. Nik gogoratzen dut eskolara joatean beti pilota poltsikoan eta errekreoa heltzen zenean denok korrika gindoazen horma harrapatzera eta hori galdu da, hain zuzen pilota dastatzea.

### Etorten zara bisitaren bat egitera zure auzo ohira?

Lagunak bisitatzera hurbiltzen naiz, dena dela ez nik nahi izango nukeen beste, baina joaten naiz.

## Galdera laburrak

- Pelikula bat?  
*Senderos de gloria*
- Bazkari bat?  
Entsalada
- Euskal herriko herria?  
Lekeitio
- Amets bat?  
Emakume gehiago pilotan aritzea
- Euskal musika talde bat?  
Mikel Laboa
- Idazle bat?  
Andu Lertxundi
- Liburu bat?  
*Otto Pette*
- Izen bat?  
Peru
- Mendia ala hondartza?  
Mendia
- Mendi bat?  
Orixol

# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak



## Lurjausiak Ibarsusi parean

Azaroaren 3an, Bilboko ekialdeko bariantean egindako leherketa batek lurjausiak sortarazi zituen N-634ean. Ondorioz, bi karril moztu behar izan ziren eta auto erretentzio ugari egon ziren.

## Solokoetxeko musika eskolan zuzendaritza kritikapean

Kontserbatorioko gurasoen elkarteak eta kontseilu zentruak behin eta berriz salatu dutenez, zuzendaritza kudeatzaileak ez ditu bete hezkuntza arauak ezta zentruaren barne arautegia. Honetaz gain, udaleko administrazio kontseiluari bidalitako informazioa interesatua dela kritikatu dute bi elkarteek; zentruan bizi den egoerarekin ez duela bat egiten. Antolakuntza txar honen ondorioz, azken 3-4 urteoptan 400dik gora ikasle gutxiago matrikulatu dira musika eskolan. Hau gertatu da kiurto gorenetaoek ez dutelako behar hainako maila jasotzen. Gurasoen elkarteak eta zentruko kontseiluak konponbide ezberdinak eskaintzen dituzte. Batetik, kontserbatorioko kontu ekonomikoak zentrua osatzen duten guztiek ( irakasleek, gurasoek, administrazio kontseiluak...) eskuragarri izatea. Bestetik, antolakuntza guztiz eraldatzea ( ordu-tegi finko bat ezartzetik hasita). Azken finean, gurasoen elkarteoek eta zentruko kontseilukoek aitortu



dutenez, musika eskolak ezarritako helburuak ez dira bete zuzendaritzan izandako arazoengatik: ez dira zentruko baliabide guztiak aprobetxatzen eta ez dago diru publikoaren kontrolik. Kontserbatorioko zuzendaritza kudeatzaileari dagokionez, ez du kasurik egin aurretik aipatu bi




## Iturri berria Santutxun

Santutxun, inork espero barik udazkeneko perretxikoen antzera iturri berri freskoa agertu zaigu Karmelo kalearen erdian, Metroaren igogailuaren ondo-ondoan hain zuzen.

elkargoek salatu eta kritikaturako egoeraren aurrean.

Bestalde, nahiz eta udaletxeko administrazio kontseiluko presidentek beraien salaketak ezagutu, ez ditu jarri administrazio kontseiluko eztabaidagai.



# Hauteskundeetako gorabeherak gure auzoetan

	ERROL-96	ERROL-98	+/-	EAJ 96	EAJ 98	+/-	PP 96	PP 98	+/-	PS-EE 96	PSE-EE 98	+/-	HB 96	EH 98	+/-	IU 96	IU 98	+/-	EA 96	EA 98	+/-
BEGOÑALDE	8668	8599	-69	1499	1619	120	1296	1456	160	1670	1284	-386	487	680	193	665	385	-280	173	252	79
URIBARRI	33676	31351	-2325	6923	6890	-33	5662	5642	-20	5109	3866	-1243	1606	2434	828	2287	1479	-808	887	1085	198
BOLUETA	7967	7523	-174	1008	1094	86	912	1059	147	1775	1338	-437	457	595	138	625	344	-281	100	152	52
OTXARKOAGA	10890	11278	388	812	1152	340	966	1126	160	3540	2447	-1093	510	708	198	753	422	-331	127	185	58
SANTUTXU	30494	30805	311	6129	6595	466	4687	5088	381	5342	4179	-1163	2148	2980	832	2165	1323	-842	832	994	162
TXURDINAGA	12235	13415	1279	2144	2663	519	1640	1951	311	2322	1984	-338	715	1232	517	937	706	-267	265	419	154
GUZTIRA	103930	102971	-590	18515	20013	1498	15163	16322	1139	19758	15098	-4660	5923	8629	2706	7432	4659	-2809	2384	3087	703

Pasatu dira hauteskunde autonomikoak eta jada guztiok dakizkigu datu orokorrak; zein alderdik egin duen gora, zein jeitsi den... Guztion ahotan ibili da Lizarrako Akordioa garaile izan dela alderdi estatualisten aurrean... Baina zer gertatu da zehazki gure auzoetan? Mahatsorriko errealtatea hurbilagoz egazguzteko asmoz, auzoz auzoko datuak jaso ditugu. Ez dugu azalpen handirik emango, zenbakiak berak ikusi eta alderatzea izaten baita onena, eta norberak neka dezala burua, ondorio argiren bat atera nahi izanez gero. Halere, auzo bakoitzeko daturik adierazkorrenak aipatuko ditugu, gaineratik bada ere.

Begoña aldearekin hasiko gara. EAJk PSE/EEri lehen postua kendu dio azken hauteskundeetatik. EAJk, EAEko leku gehienetan bezala gora

egin du (120 botu irabazi ditu Begoña aldean), eta PSE/EE EAE osoan galtzaile gisa agertu bada, hemen ere asko egin du behera (386 botu galdu ditu). Bigarren postuan PP agertzen da; honek ere gaingitu du PSE/EE. 160 botu irabazi ditu; asko, herri gehienetan egin duen bezala. Halere, botu kopururik handiena gehitu duena EH izan da Begoña aldean ere; HBk duela bi urte lortutako botuak baino 193 gehiago lortu ditu aurten EHk. Laugarren postuan geratu da ondorioz, EBri aurre hartuaz. Orokorki esan daiteke EB izan dela galtzaileetariko bat hauteskunde hauetan. Begoñan ere ikus daiteke hori, 280 botu galdu baititu eta ondorioz 5. postuarekin konformatu behar izan baitu. Azkenik, EAK 79 botu gehitu dituen arren, 6. postuan jarraitzen du. Urribarririk, batzuetan EAEko emaitza

orokorrak jarraitu dituen arren, beste zenbaitetan orokorrean gertatutakoaren aurkako emaitzak izan ditu. EAJk jarraitzen du buruan, botu gutxi batzuek galdu dituen arren. PPk bigarren postuan jarraitzea lortu du nabarmenki, baina aipatzekoa da botu batzuek galdu dituela. Galdutako botuak 20 besterik ez den arren, kontutan hartu behar da orokorrean PPk botu kopuru handia irabazi duela, eta hauteskunde hauetako irabazle nagusietako bat jotzen dela. Hirugarren postuan PSE/EEk jarraitzen du, nahiz eta leku gehienetan bezala botu asko galdu dituen (1.243). EH kokatu da laugarren postuan Urribarrin ere, EBri lekua kenduaz. Gainera, botu kopuru handia irabazi du EHk: 828. EB 5. lekuan geratu da 808 botu galdu ondoren. Eta EAK 198 botu gehitu dituen arren seigarren izaten jarraitzen du Urribarrin ere.

Boluetan hauteskundeek izan duten joera, emaitza orokorren adierazgarri dela esan daiteke. PP eta EH izan dira gehien igo diren taldeak. EAJ ere dezente igo da eta EA zertxobait gutxiago. Botu asko galdu dituztenak, PSE/EE eta EB izan dira, joera orokorrari jarraituz. Halere, PSE/EEk jarraitzen du indar nagusi izanten Boluetan. EAJ dago ondoren, eta PP gero, alde txikiak. EH da laugarren indarra, EB ondoren, eta EA seigarrena.

Otxarkoagan PSE/EE-ren jeitsiera izugarria izan da. 1.093 botu galdu ditu, baina hala ere lehen indarra izaten jarraitzen du. EAJ da bigarren indarra da orain ere eta 340 botu igo ditu. Hirugarren lekuan PP dago 160 botu gehiagorekin; laugarrenean EH 198 botu gehiagorekin; bostgarren EB 331 botu galdu dituen arren; eta seigarren EA, 58 botu gehiagorekin.

Santutxun EAJk jarraitzen du lehen indarra izaten eta 466 botu gehiago ditu duela bi urte baino. Bigarren indarra PP da; 381 botu gehiago ditu. Hirugarren indarra izaten jarraitzen du PSE/EEk nahiz eta hemen ere botu kopuru handia galdu duen: 1.163. Laugarren indarrak, EHk, duela bi urte HBk jasotako botuak baino askoz gehiago lortu ditu aurten: 832 gehiago. EB-k botu asko galdu ditu Santutxun ere: 842; halere, bostgarren tokian jarraitzen du. Eta seigarren EA da hemen ere, 162 botu gehiagorekin.

Txurdinagan EAJ eta EH izan dira gehien igo direnak; 519 eta 517 botu gehiago, hurrenez hurren. EAJk jarraitzen du lehen indarra izaten. PSE/EEk 338 botu galdu ditu, baina bigarren postuan jarraitzen du. PP da hirugarren indarra 311 botu gehiagorekin. Laugarren EH da esan bezala dexente igoaz. EBk Txurdinagan ere nahiko botu galdu ditu (267) eta bostgarren postuan jarraitzen du. Eta seigarrenak, EAK, 154 botu gehitu ditu.

## ● Orain dela urte bat gertatutako erahilketaren epaiketa hasi da

1997ko Abuztuan 25 urteko gazte batek beste gazte bat erahil zuen laban batekin Santutxuko taberna batean. Hiltzaileak ez zegoela jakitun aitortu du, baina hala ere fiskalak 15 urteko kartzela zigorra eskatzen du. Abokatu defendatzaileak, gaztea guztiz mozkortuta zegoela eta entzerrona batean aurkitu zela argudiatuz, aske irtetzea edota gehienez sei hilabetetako kartzela zigorra eskatzen du. Akusatuak, alkohol ugari edan eta kokaina gramo bat kontsumitu zuen eta adierazi zuenez ez zen konturatu egin zuenaz.

Herri-epaimahai batek erruduntzat jo du gaztea. Epaimahaiak kontzienteki hil zuela onartu du. Honela, ministeritza fiskalak 10 urtetako kartzela zigorra eta 15 milioiko kalte-ordainketa eskatu du. Orain, epaimahaiak berediktua eman ondoren Epaitetikoko lehenengoko sekzioko auzitegiak ebazpena eman beharko du.

## ● Gabonetako loteria zozketan ordainagiri baliogabeak

Santutxuko merkatarik elkarteko 19.227 loteria zenbakian, 101-200 bitarteko (biak barne) ordainagiriak baliogabe geratu dira talde honek aditzera eman duenez.

## ● 7 urte eta gero indemnizazioa ordaindu

1991ean Prim kalean estalki gabe zegoen estolda batera eroritako neskato bati 650.000 pezetako indemnizazioa ordainduko dio Bilboko udalak. Erorketa honen ondorioz, 62 egunetan medikuaren trataera behar izan zuen neskatoak bere hankan. Nahiz eta garbiketa sarea udaletxeak kontratatutako enpresa bati zegokion, erantzunkizuna udalaren esku geratu zen.

## ● Erakusketa mugikor misiolaria Mahatserrian

“Entra en la gran aventura” izenburuko erakusketa Otxarkoaga eta Begoña udalategietan ikusi ahal izan dugu. Ruanda, Angola eta Ekuador herriekiko hurbilpen gisa erabili izan da bertako egoera ikusi asmoz. Bilboko zein Bizkaiko hainbat lekutan egongo da ikusgai.

## ● Txurdinagan kutsadura maila altua




Airearen kalitatearen zaintza sareak egindako ikerketen ondorioz jakin da Txurdinaga izan dela Bilboko auzoetatik kutsadura maila altuena eman duena.. Hala ere, ikerketa honen bidez aditzera eman denez orokorrean kutsadura maila moderatua izan da. Ikerketok pasa den hilabetekoak dira.

## ● Bilbobus gehiago Bolueta inguruan

Mina del Morron 1.000 etxebizitza gehiago egingo dira eta honen ondorioz Bilbobusek bere zerbitzuak inguru honetara zabalduko ditu.

## ● Neska bat kotxearekin harrapatu eta alde egin

Udaltzainek, herritarren laguntza eskatu dute Begoña basilizaren inguruan Azaroak 1eko goizaldean gertatutako istripua argitzeko. Bertan, 24 urteko neska bat zaurituta gertatu zen eta kotxeak hanka egin zuen zaurituaren egoeraz arduratu gabe.



# mahatsorriak Indian

Badira udara honetan mendiko materiala hartu eta Himalaya aldera joan diren zenbait auzokide, negua eta udaberria entrenatzen eta aurrezten eman ondoren, Abuztuan Indiara joan dira Satopanth mendiaren igoera saiatzeko. Ez zuten igoera osotu baina oso esperientzia ona izan dute eta errepikatzeke irrikitan daude.

## ☞ Joseba Zelaia

Guztira hamaika mendizale joan ziren, Bizkaitar eta Gipuzkoar, Bizkaitarren artean gehienak auzokideak, eta hauen artean gazteenak izan dira beren gogoetak azaldu dizkigutenak: Asier, Gorka, Unai eta Ager.

**berton:** Tira, zuen bilakaera mendian zelakoa izan da, eta zelan sortu zen Indiara joateko aukera?

**Gorka:** Beti izan dugu mendirako afizioa, eta bilakaera mundu guztiarena bezalakoa, lehe-nengo inguruko mendietan eta gero Pirineoak eta Pikoak

ezagutuz joan gara. Alpeetan ere zerbait egin dugu, baina ez gara Andeatatik pasatu, normalean mendizaleak Himalayara joan baino lehen Andeetan ibiltzen dira. Esan daiteke guk erdiko pausu hau jan dugula.

**Asier:** Bueno, hara joateko aukera nire anaiak eskaini zigun, birritan egon da Indian Gipuzkoar lagunekin, aurten Satopanth igotzeko baimena zeukaten eta jendea behar zutenez, birritan pentsatu barik gu ere apuntatu ginen.

**berton:** Zelan moldatu zineten dirua eta materiala lortzeko?

**Unai:** Guztira hamaika pertsona joan gara, beraz gastuak nahiko banatuak egon dira eta ez zaigu oso garesti atera. Diruaren zati handi bat kamisetak saltzen lortu dugu, baina nahikoa ez zenez, lanean ibili gara han hemenka.

**Asier:** Materialaren mobida errazagoa izan da, Pirineoetan edo Alpeetan erabili dugun berbera izan da, izan ere, gu egon garen tokian eta garaian, eguraldia nahiko epela da eta ezdugu ezer berezirik erosi behar izan.

**berton:** Prestakuntza fisikoa zelakoa izan da?

**Gorka:** Gu beti egon gara



1996ko azaroa. G. Zerbaitak.

sasoian...

**Unai:** ...Bueno, bueno baina hala ere igoerarako prestatzen ibili gara, saiatu gara astebururo Pirineoetara ateratzen, eta astean zehar korrika egiten, baina ez zaigu gehiegi gustatzen korrika egitea, beraz, asteburukarak Pirineoetan izan dira prestakuntzaren zatirik handiena eta gustukoena.

**berton:** Gaixotasunen kontra zer egin zenuten?

**Ager:** Indiara joateko zenbait neurri hartu behar dira, gu txertoak hartzen ibili ginen tifus eta holako gaixotasunen kontra, baina hala ere diarreak izan dira gure etsairik handiena, kontu handia izan behar da edaten den urarekin bai mendian bai hiri zein herrietan, ura beti egosi behar da, hala ere denok izan ditugu diarreak arazoak, eta esan behar da gutako bat Bilbora heltzean zuzenean Basurtuko ospitalera eraman behar izan genuela izugarriko diarreakin eta bertan egun pare bat igaro behar izan zituela.

**berton:** Indian hartu zenuten lehenengo inpresioa zelakoa izan zen?

**Ager:** Flipantea, aireportura heldu eta hegazkineko atek zabaldu bezain laster, hezetasun eta bero olatu batek kolpatzen zaitu, hasiera baten pentsatsen duzu ezin izango duzula hilabete bat aguantatu, baina, tira, denetara ohitu beharra dago. Giroaz aparte hango bizitzeko modua, aluzinantea da, kaosean bizi dira, edo behintza europar ikuspuntu batetik kaosean bizi dira baina beraiek moldatzen dira.

**berton:** ...Eta Indiarrekin erlazioa?

**Gorka:** Horri buruz hitz egiteko, hiru atal ezberdindu beharko genituzke, hiriak, herriak eta porteadoreak. Erlazionatzeko arazorik handiena hizkuntza

izan da, ingelesez moldatu gara zerbait hitz egiteko, baina beraien jarrera baikorra izan da gehien lagundu duena erlazioan oso jende jatorra da. Hala ere horrenbeste txirotasun egonda, jende asko eskalea da, eta batez ere umeak denbora guztian ari dira diru eske, askotan pixkat nazkatuta bukatzen genuen horrenbeste umerekin inguruan.

**Asier:** Herrietan erlazioa naturalagoa izan da, jendea ea nongoak ginen galdetzen zigun eta zein mendi igotzera gindozen. Esan beharra dago erlazio gehiena gizonekin izan dela, bai Delhin, bai herri ezberdinetan, emakumeak beti daude lanean. Arroz ortu guztietan emakumeak baino ez ditugu ikusi lanean.

**Unai:** Porteadoreak, Indiarrak eta Nepaliak izan dira eta erlazioa ezberdina izan da izan ere, guretzako ari ziren lanean gure gauzak kriston bultuetan eramaten, eta oso kondizio txarretan, burutik eskegita, txankleta zaharretan, eta lo egiteko maindire kutre bat baino

ez zuten erabiltzen gu, ordea, gure markako mobida guztiekin eta motxila txiki batekin, ez zen plana beraiekin hitz egiten hastera. Menditik jaistean pixkat gehiago erlazioan ginen eta oso jende jatorra dela esan beharra dago.

**berton:** Zelan egon zen bidaia antolatua, hau da, janaria, porteoak, janaria...?

**Unai:** Indiar bidai agentzia batek antolatu zuen dena, Indiara heldu ginenetik, bai autobus bidaiak bai porteadoreen kontratazioa edo janariaren erosketa agentzia honek antolatu zuen. Esan behar da kanpo basean sukaldari bat genuela, eta patatak, arroza, dilistak, pasta bezalako gauzak jaten genituela hau guztia agentziak antolatu zuen, eta bertan erositako produktoak izan ziren. Mendian jan genuena, ordea, hemen erosi genuen, gauza bereziagoak ziren eta han topatzeko zailtasunak zeuden.


**berton:** Zer esan dezakezue mendiaz eta zein izan da ez igotzearen arrazoiak?



**Ager:** Gu postmontzoian joan ginen, baina eguraldia oraindik nahiko ezegonkorra zen, mendian egon ginen bitartean egunero egon zen euritan edo elurretan. Mendiaren zatirik zailena 6000 metrotatik 6300 metrotara dagoen arista bat da, guk izotza eta elur gogorra topatzea espero genuen baina elur biguna topatu genuen. Igoeran gaueko ordu bata inguru pasatu behar ginen handik baina jaitsieran eta eguzkiaren eraginez askoz okerrago egoteko aukera zegoen beraz erabaki genuen aristatik ez pasatzea eta handik bertatik jaitsi ginen.

**berton:** Asier, enteratu gara zure anaiak, Albertok, Cho-Oyuren igoera egin duela, zer esan dezakezu hortaz?

**Asier:** Gauza gehiegirik ez, izan ere orain dela oso gutxi heldu da eta oraindik ez dut berarekin egoteko aukera izan, bakarrik dakit hasiera baten ruta berri batetik igotzeko asmoa zeukatela baina azkenean normaletik igo ziren. Guztira bi pertsona baino ez dira joan nire anaia eta gurekin Satopanthen egon zen Gipuzkoar bat.



zure publizitatea

berton

94 473 54 48

berton

## 25. urtemugan beti galduak

Santutxun beti egon da mendirako grina. Horren islada zuzena Santutxuko mendi taldea da. Talde hau sortu zenetik mende laurdena pasa da eta oraindik ere sarritan aurki ditzazkezu Santutxuko mendizaleak Euskal Herriko tontor ginetan. Nahiz eta 25 urte hauetan mendi askotan galdurik ibili, azkenean beti norabide zuzena aurkitu izan dute.

### ⇒ Unai Cuevas

Santutxuko mendi taldearen historia 1973an hasi zen. Garai hartan, Santutxun, gau eskola zegoen eta ingurune horretan hain zuzen ere sortu zen taldea. Aitzindarien artean Juanjo Basterra, Rafael Bravo edota Arturo Arruza aurkitzen ditugu. Hauei, Euskal Herriko mendi federazioak 100 lagun bildu eta federatzeko eskatu zien. Eta orduan, hainbat lagun bildu eta mendi taldearen lehenengo hastapenak egin zituzten. Beraz, gau eskolatik ateratako talde batetik mendi taldea sortu zen.

Talde santutxutarrez osatua dago eta 400 bazkide inguru ditu. Hauetatik 150 federatuta daude. Beste mendi talde batzuekin ez dute harreman handirik mantentzen, hala ere, Uribarriko

Gau eskolatik ateratako talde batetik mendi taldea sortu zen

mendi taldearekiko duten harremana nahiko estua da.

Subentzioei dagokionez, ez dute

bat bera ere jasotzen. Beharrezkoa duten dirua jasotzeko urtero hirutan kupoiak saltzen dituzte eta honekin nahikoa izaten dute.

Hilero irteera bat egiten dute. Azkenengoa, azaroan Leizarango inguruetatik egindakoa dugu. Bestetik, eta urtea ondo bukatzeko, Biasterira joango dira; bertara, turroia eta gabonetako produktuak eramango dituzte parrandatxo bat egiteko asmoz.

Mendi taldea jende helduak osatzen du batik bat, baina orain dela gutxi jende gazte osatutako



taldetxoren bat sartu da. Hori da taldeak nahi eta bilatzen duena, jende gaztez osatutako erreleboa.

Talde honen historian behin eta berriz errepikatu izan den pasadizua galtzearen kontua izan da. Mendian asko ibili arren ez dute orientazio egokirik izan eta hainbat alditan galduta edota erdi galduta aurkitu dira. Azkenaldian, aldiz, badirudi zorionez arazotxo hau konpondu dutela. Anekdotak errepikakor honen ondorioz, taldekoek kamisetak atera dituzte ( ez dakigu hauek ere galdu ote diren...). Pasadizuekin jarraituz, gogoratu beharra dago talde honetako hainbatek inoiz ahaztuko ez duen bidai bat. Abentura hau Fidel Izagirre

presidentea zen garaikoa dugu (orain Ramon Basterra dabil presidente lanetan). Ibilaldia Urbasako mendilerroan burutu zuten eta goizean atera eta

**Taldeak bilatzen duena jende gaztez osatutako erreleboa da**

gauera arte ez ziren bueltatu helmuga puntura. Izugarritzko elurtea egin omen zuen eta presidenteak bueltatzen zirela ikusi zituenean egundoko poza hartu zuten guztiok (negar malkoak eta besarkada ugari egon omen ziren).

25. Urteurrena ospatzeko jaietan

martxa bat egin zuten eta azaroan filminen lau pase eman dituzte. Honetaz gain, eta ekitaldi nagusi gisa azaroak 28an bazkari popularra izan zuten.

Mendizalea bazara, hobby berri bat bilatzen ari bazara edota asteburuak beste modu batera igaro nahi badituzu, jo ezazu Médico Antonio Eguiluz 3ra. Bertan, astelehen eta ostegunetan arratsaldeko 8etatik 9tara Santutxuko mendi taldekoak biltzen dira. Ah! Eta 25. urtebetetzea zoriontzeko opari bat egin nahi badiezu, brujula bat ez litzateke ideia txarra izango.

**ZORIONAK SANTUTXUKO MENDI TALDEA!**

## Laburkirol

### ▲ Hockey ligan Santutxu lider

Senior mailan eta Ipar Ligari dagokionez, Santutxu H.T. lidergoan dago Tenis Santander taldearekin batera. Honetaz gain, maila jubenilean lehen postuan dugu eta juniorean baita ere (honetan beste talde batzuekin batera).

### ▲ Ikastolen Elkartek antolatutako krossak hasi dira

San Adriango Urretxindorra ikastolak antolatu zuen lehenengo krossa eta arrakasta nabaria lortu zuen. Hurrengokoa Zornotzako Andra Mari-k antolatuko du abenduak 13an; urtarrilean, berriz, Abusuko ikastolak. 16 ikastolek parte hartuko dute kross hauetan, hoiere artean, besteak beste, Txurdinagako Kirikiño ikastola.

### ▲ Martxan da Santutxuko "Sei Izar" XXI. Herri Krossa

Santutxuko Familia Elkarteak hasi da dagoeneko lasterketa ezagun honetarako prestakuntza lanetan. Aurreko edizioen aldean ez dago aldaketa nabarmenik. Errege egunean egingo da beti legez, eta hauek izango dira ordutegiak: goizeko 11etan umeentzako 2 kilometroko proba egingo da, eta hauek amaitu ostean nagusientzako 7,5 kilometrokoa. Basarrate plazatik abiatuko dira karrera biak.

Parte hartu gura zenuketen guztiok urtarrilaren 4 eta 5ean Santutxuko Familia Elkartearen egoitzan (Iturriaga 55, 1 ezkerrean) eman ahal izango duzue izena arratsaldeko 7etatik 9etara, edo urtarrilaren 6an bertan proba hasi baino ordu bete lehenagotik. Izen ematea, beti legez, dohainik izango da.

### ▲ Santutxutar bat Herri Kross-eko lehen postuan

Asier Zarraga santutxutarra izan da aurtengo Herri Krossean lehenengo heldu dena. Irabazleak 30 minutu eta 59 segundutan bete zituen ibilbidearen 10 kilometroak. Aurtengo Herri Krossean 8.147 korrikalari aritu dira, urte guztietako partaidetzarik altuena lortuz.

Aipatu beharra dago ere santutxutar honek duela Bizkaiko maratoni korrikalarien markarik onena.

### ▲ Santutxutarrak Gorbean

Euri, laino eta guzti, pasa den azaroaren 14ean, hainbat santutxutar Gorbean izan ziren, urtero lez, Santutxuko Mendi Taldeak antolatutako ibilaldian parte hartuz. Hasiera batean zenbait bizikletaz joateko asmoa bazuten ere, eguraldia ikusita ez irteera erabaki zuten, eta horrela, oinez joatera animatu zirenak bakarrik egin zuten ibilbidea. Bolueta, Arrigorriaga, Ugao... goizeko seiretan irten eta ordu biak aldera iritsi ziren lehenak Pagomakurreko zelaietara. Ausartenak goraino igo ziren arren, pare bat bidetik gelditu zen eta beste askok tontorreraino ez joatea erabaki zuten. Eguraldi kaxkarra eta nekea izan ziren, hortaz, eguneko protagonista.

# kulturberriak

## Eider Eibar, punta-puntako margolaria

Txikitatik dabil arte munduan murgilduta eta bertan lanean jarraitzeko asmoa dauka. Izan ere, esposaketa bat egin berri du eta iazko Santutxuko jaietako kartel lehiaketa irabazi zuen. Gaur egun Arte Ederrak ikasten dabil eta gelditzen zaion denbora gehiena, artearen inguruko gaietan lanean ematen du. Margoari eta beste hainbat gauzari buruz hitzegin dugu Santutxuko neska gazte honekin.



### ☞ Zuriñe Uriarte

Berton: Noiztik margoarekin duzun afizioa?

Eider: Betidanik gustatu izan zait margoa, ikastolan asko bultzatzen zuten sormena eta ia egunero egiten genuen margoarekin zerikusia zuen zerbait: marrazkiak, muralak, kartelak...

Berton: Zelan sartu zinen mundu honetan?

Eider: Behin irakasle batek nire marrazki bat ikusi eta nire amari nonbaiten sartzeko gomendioa eman zion. Horrela, zortzi urterekin akademia batetan hasi nintzen eta oraindik ere, bertan

jarraitzen dut.

Berton: Ordutik hona lehiaketetan parte hartu duzu...

Eider: Bai, gauza horietara nahiko animatzen naiz. El Corte Ingles, kartel lehiaketak...behin, konturatu gabe, OPUSeko txapelketa batetara aurkeztu nintzen, eta sari banaketa arte ez nintzen jabetu OPUSekoa zenik.

Berton: Eta irabazi?

Eider: Beno, El Corte Inglesekoan nozbait irabazi egin dut, eta '97ko Santutxuko jaietako kartela nik egin nuen.

Berton: Erakusketak ere egiten dituzu.

Eider: Bai, orain arte arte-aretoan eta kultur etxeren batetan egin ditut esposaketak. Zornotzan, Kanalan, Juan de Larrea aretoan Bilbon...egin dudana azkena Kalderapeko AEK-ko aretoan izan da.

Berton: Zaila iruditzen al zaizu mundu honetan zerbait lortzea? Ospea, edo gutxienez, lekutxo bat izatea?

Eider: Egia da jende on asko dagoela arte munduan, eta guzti horien artean, ni beste bat naiz. Lekutxo bat egiten saiatuko naiz esposaketak, salmentak, elkarrizketa txotxoloak (barre egiten du) eta holakoak eginez, baina nik ez dut ospea bilatzen,

ez orain behintzat. Beharbada urte batzuk barru...

Berton: Salmentak aipatu dituzu. Zure kuadroak saltzen dituzu?

Eider: Oso gutxi. Eskaera gutxi dago, jendearen lehentasunak beste batzuk dira. Gainera, nik kuadromina daukat, niretzat nahi ditut guztiak.

Berton: Arte Ederrak ikasteko erabakia hartzea ez zitzaizun oso zaila izango...

Eider: Ez, egia esan ez nuen nire burua beste inon ikusten, edo beste zerbait egiten.

Berton: Egia al da fakultatekoek duzuen zoro fama hori?

Eider: Fakultatea super ondo dago. Giroa oso zabala da, edonor onartzen duena. Nik uste, jendearengandik ikasten da gehien bertan, karrera berez nahiko askea da eta horrek aukera asko ematen ditu.

Berton: Gustora egiten da lan bertan?

Eider: Bai, nik edonon egiten dut lan gustora. Etxean, fakultatean, akademian,...Udan kalean ikusten dudana margoztea gustatzen zait, jendea batez ere.

Berton: Karrera bukatzean, zer?

Eider: Uff! Mila gauza egingo nituzke. Marrazki bizidunak edo ipuinak ilustratzea gustatuko litzaidake, baina beste hainbat gauza daude: kartelgintza, ilustrazioa, diseinua, errestaurazioa... eskultura gustatzen zait bereziki.

Berton: Eta Guggenheim-en lan egitea?

Eider: Beno, gogoz kontra bada ere, Guggenheim-a hor egotea onartzen dut. Berez, ez da bermatzen dudana zerbait, baina hor dagoenez gero, ahalik eta positiboan ikusten saiatzen naiz. Hala ere, hitzegiteko gai zaila da, eztabaidagarria.

## Bizkai-Arabako Bertsolari Txapelketa, azken txanpan

Finalerdiak eta Bilboko finala baino ez dira gelditzen jokatzeko Bizkai-Arabako Bertsolari Txapelketa, gaurdanik eta abenduaren 27a arte. Aurreko zenbakian aipatzen genizuen sailkapen saioetatik eta aurretiaz sailkatutako hogeita hamar bertsolariatatik hamazortzik lortu dute hiru final aurrekoetarako txartela, eta tamalez, Mahatserriko inork ezin izan du hor egon. Hori bai, Santutxuko Bertso eskolakide Iratxe Ibarra markinarrak aurrera egitea lortu du, zazpigarren puntuaziorik onena lortuz. Iratxek lehen saioan kantatuko du azaroaren 29an Getxo Antzokian, eta Jon eta Onintza Enbeita, Ander Oleaga, Anertz Muniategi eta Mañukorta izango ditu lehiakide. Beste final aurrekoak abenduan izango dira, 6an Zaldibargo frontoian, eta 13an Bermeoko frontoian. Lehenengoan Txiplas, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Etxahun Lekue, Asier Otamendi eta Beñat

Ugartetxea ibiliko dira kantuan eta Bermeon aldiz Ibon Ajuria, Oihane Enbeita, Beñat Gaztelurrutia, Kepa Intxausti, Aritz Lopategi eta Arkaitz Ugartetxea.

Beraz, izenak ikusita horrenbeste partehartzaile izan duen txapelketa luze honen zenbait ondorio atera litezke: aurreko finalista guztiak sailkatu dira Juanjo Respaldiza izan ezik, eta sailkapen saioetatik lehenengoz txapelketara zetozenak oso indartsu heldu dira. Izan ere, saioetako bi Onintza Enbeita eta Etxahun Lekue irabazi dituzte.

Orohar ez da bertso onegirik entzuteko aukera izan, faboritoak txartela ziurtatzen saiatu ziren, eta besteen ahaleginak hutsean gelditu dira. Orain gehixeago estutu beharko dute motorra hilaren 27an Bilbon egon gura badute, eta areago, han irabazteko. Gurek hurrengo txapelketari itxaron beharko diote, eta bitartean ea Iratxe Arriagan ikusten dugun.

### ⇒ André Hrndz-en bideo berezia ikusgai

Hrndz-en bideo dokumentu berezia ikusgai izango dugu Otxarkoaga zein Begoñako udal zentruetan hilabetearen bukaera aldera. Egileak, Bilboko udaleko 30 kamarek 2 urtetan grabatutako irudiak 40 minututara laburtu ditu. Honela, egun bat balitz aurkezten du bideoa, hiriarren bizitasuna isladatuz. Aurkezpen ofiziala Mina espazioan egin zen aurreko hillean.

### ⇒ Doctor Deseoren agurra

Jakina da Doctor Deseo musika taldeak ohikoa duela atsedendaldi luzeak egitea, eta oraingoan ere, agur esan du talde bilbotarrak 2000.urtera arte.

Azkenengo bi kontzertuak Bergaran eta Lizarran eskaini zituzten, hurrenez hurren. Bata JAM aretoan eta bestea gaztetxean, leporaino zeuden lokalak taldearen agurra ikusteko zai.

Bestalde, nahiz eta bi urtez kontzertu gehiagorik ez duten emango, Discos Suicidas disketearen eskutik bideo bat kaleratzekotan dira. Bertan, besteak beste, Kafe Antzokian eskainitako kontzertu baten irudiak eta «Olas y Naufragios» abestiaren bideo-klip-a bilduko dituzte. Etenik ez, beraz, talde honentzat.

### ⇒ Piztiak taldeak bideoklip berria aurkeztu du

Piztiak taldearen bideoklip berriaren aurkezpena egin da Kafe Antzokian. OLEE produkziño ekoiztetxeak landu du bideoa eta "ordubete" izeneko kantua inguruan egina dago.

JAKIN NAHI IZAN MITUEN BAINA GALDETZERA

AUSARTU EZ MINTZEN GAUZAK.

(EDO NIRE JARRITZERA AUSARTU EZ DIREN JAK)



hau kondoi bat da.



nire lagun den Patxik erakutsi zidan. Bere gurasoen gelan aurkitu zuen.



larrua jotzeko balio du, eta neska haurdun ez gelditzeko.



hau porro bat da.



Txarlyk erakutsi zidan. Bera baino nagusiagoak diren mutilekin ibiltzen da.



Hau erretzeagatik lasaiago sentitu eta guay-agoa zara.



Hau telebistako aparailu bat da.



Nire aitak erakutsi zidan.



Ez dakit zertarako balio duen berak baitauka beti.

kondoi bat edo porro bat zer den galdetuko nioke, edo zertarako balio duen telebistako aparailu horrek, baina Patxi eta Txarlyri galdetzen jarraitu beharko dut, aitak ez baitit uzten bere arreta desbideratzen telebista ikusten duen bitartean...

ZURRO


# Lehiaketa mundiala

Amen dator atzera gure konkurso marabillosoa. Aurrekoan batzuek asertau dozue. Bueno, asertau lekue, baie zer zan ez. Karmelo plazan dago atarato erretratue baie ez ziren festak, espedizino bateri ein eutsien omenajie baino. Baie, tire! Ontzat emongo dogu.

Irabazlie Goiatz Lizarribar ixen da.

Oingoan ie asertaten badozue hau frontoie non egoan. Joserra Garaik jakingo deu seguruenik.

Sarie bere aldatu ein dogu, orain ez dago afaririk, gure rebista marabillosoan suskripziñoa baino. Ez da gitxi gero!



Beraz, pentsaizue, eta bertonen harpidetza debalde gure badozue beko koadroa bete eta bidaldu beheko txartela helbide honetara:

Berton aldizkaria, Iturriaga 55, 1. ezkerre. 48004 Bilbo

## NON EGOAN FRONTOIA?

Zabalbiden, "Angeles Custodios"etik apur bat gorago.

Begoñan, basilikaren ostean.

Santutxun, Juan de la Cosako taberna baten.

Izen-abizenak: .....

Helbidea: ..... Telefonoa: .....



Mahatserriko aldizkaria Bertoko berriak, kontuak, iritziak, zeuretzat eta zeurea ere bada

HARPIDETU!

KOLABORATU!



**GOIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**


Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**













Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22

# agenda

- ⇒ Abenduak 5, larunbata: Txarriboda Otxarkoagan, Peña Pa...Ya-k antolaturik
- ⇒ Abenduak 5,6,7,8: Durangoko liburu eta diska azoka.
- ⇒ Abenduak 20: Mendi irteera Santutxuko Mendi Taldearekin Biasteriko La Población mendira (1.245m). Apuntatzeko, astearte edo ostegunetan arratsaldeko 7tatik 9tara, Médico Antonio Egiluz 3, solairuarte.
- ⇒ Ikastaroa : "Sozialki baztertutako kolektiboekin aritzeko tekniko". 200 ordu (Abenduaren 28tik 1999ko Martxora bitartean). 9etatik-14 etara. Begoña-Txurdinagako udaltegian.
- ⇒ Abenduak 19, "Bai euskarari" jaia Santutxun.
- ⇒ Abenduak 21: Santo Tomas.
- ⇒ Abenduak 24: Olentzero auzoetan.
- ⇒ Abenduaren 26an San Mames, Anoeta, Sadar, Mendizorrotza eta Miarritzeko rugby zelaietan: "Bai euskarari" ekitaldi nagusia
- ⇒ Abenduak 27: Bizkai-Arabako bertsolari txapelketaren finala.
- ⇒ Abenduak 28: Iñuxente eguna, KONTUZ!
- ⇒ Bai Euskarari antolatzeko batzordea. Santutxun asteartero arratsaldeko 7.30etan Begoñako Udaltegian.



## HOROSKOPOA

-  Aries: Txipli txapla pum! lasai jan gaztaina erre horreik. Asteburuko zuritoez loditzen dabe, ez gaztainek!
-  Taurus: Hotz egiten dauala eta uda noz etorko dan? Hobeto ikasi egizu negua aprobetxetan, ze urtero holan ibiltea be!
-  Gemini: Ez auzotik, ez lanetik, telefonorik be ez? Zein zultara jausi zara?
-  Cancer: Polita izan leiteke hotza datorrela igartea, baina ez dot uste Artxandan eskiatuko ahalko dozunik.
-  Leo: Goizean moko zapia beti aldean? Asteburua heltzean badakizu, itzi lasai goiza pasetan eta itzartukeran emon ordu bete dutxa pean ur bero berotan.
-  Virgo: Ea zeozer polita behar dozu zeuk eta! Hala, pentsatu okurriduten jatzun gauzarik politena eta egin ames beragaz.
-  Libra: Zorionak zuri, zorionak zuri... Behin eod birritan ondo dago, baina jendea aspertu egiten da orduro kanta behar bazaizu.
-  Scorpius: Urteguna joan da, urtebete gehiago, eta zu oraindik umekeritan? Beti izango zara gazteena.
-  Sagittarius: Barrero atsedean bila? Zein da gaurko atxakia? Beti kontu bera, hau dala, bestea dala, kolperik jo barik beti.
-  Capricornus: Eutsi goiari, inguruko politena zara-eta. Baina ez pentsatu inguruan esaten dabezan danak zugaitik direanik.
-  Aquarius: Zelan ez dira zutaz akordako ba lagunak? Baina zeozer gura dauanak, emoten be jakin behar dau, gero! Bai, ez egon beti ispilura begira!
-  Piscis: Zu beti zagoz horoskopooan zerrendan, baina oindino kariñoa daukotsugu.



26an, nora?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA:

BOZKATZERA

## LETRA ZOPA

10 arrainen izenak.

J	N	A	N	I	D	R	A	S	I
A	L	N	R	O	E	U	N	T	L
A	T	A	U	G	I	X	I	B	M
O	I	U	A	Z	T	A	G	E	L
Z	T	A	N	K	E	N	O	S	R
A	O	R	R	A	X	T	I	X	T
R	P	R	O	I	L	X	N	E	I
R	Z	A	T	L	U	O	S	P	K
A	N	I	A	R	R	A	U	M	A
M	U	A	Ñ	E	D	R	E	B	R

## Galdera

Aurreko galderari erantzun batzuk bota dizkiozue, antza denez, Dolaretzek tolareko etxea esan gura du, hau da, txakolina edo eta sagardoa egiten zen etxea  
Beste galdera bat oraingoan:

*"Mina del Morro" euskaraz, zelan?*

Erantzunak hona:

Berton aldizkaria, Iturriaga 55, 1. 48004

Bilbo

94 473 54 48 tfn. E-posta:berton@mail.com

# bai euskarari!

bai

bai

Doinua: "Barruaren barrutik"  
(X. Amuriza/A. Duhalde)

-1-

Hirurogeita hamazortziko egun luzea, ta ni mutiko, San Mameseko gogorapenak nigan daukadaz betiko. "Bai euskarari" aldarripean eztarriak ia ito, sekula ez zala hilko! orduetik bizi bizi da, baina oraindino belauniko.

-2-

Euskal Herria euskara gabe irin gabeko ogian pare... Telesfororen berba zorrotzak historiaren mirabe. Hogeit urtean asko egin da errezeta haren alde, martxan dabil hainbat labe; orain ogiak uruna dauka baina gitxik jaten dabe.

-3-

Euskera barik Euskal Herria hegorik bako usategia... Gaur zorionez ez dogu bizi hainbesteko miseria. Gugaz daukaguz egunkari bat ta telebista erdia, hegobakarren egia: gure hegada geldia dala eta neketsuegia.

bai

-4-

Etxe azpiko dendetan hasi fabriketara eginez jauzi, biziko bada esparru danak beharko dauz irabazi; bardin legeak muga badira ta diglosia harresi... Zerk egin gaitu berezi? Erabateko garapen barik hizkuntzak ez dau merezi.

-5-

Trumoiak urrun amestu dodaz eta zeruan, argi emonaz koloretako akordio bat ostadarraren formagaz. Aurten be baietz esandakoan ez daitezana lotu penaz, doazela berbak hegaz! Euskal Herria altzetakotan altzatu daigun euskeraz!

Iñaki Aurrekoetxea

